

## Funtsezko elkarteak

Gure enpresaren funtzionamendua aurrera eramaten lagunduko diguten elkarteak hurrengoak izango dira:

- Durango inguruan dauden supermerkatu gehienak : Lidl, Eroski, ALDI, Hipersimply, Día... Hauek soberan dituzten jaki freskoak emango dizkigute. Modu honetan janariak aprobeztatuko ditugu; alde batetik haragi eta arrainak jantoki sozialetara eramango ditugu, eta bestalde fruta eta barazkiekin produktu berriak sukaldatuko ditugu. Horrela supermerkatuek gastuak murrizten dituzte soberakinen kudeaketan.
- Euskal Herriko denda ertain eta txikiekin elkarlana egingo dugu, denda hauek gure produktuekin hornituz, eta salneurri justu baten kaleratuko ditugu. Jaki hauek osasungarriak izango dira eta ekoizpen prozesu jasangarri baten bidez merkaturatuko ditugu; birziklatuko ontziak erabiliko ditugu.
- Salduko ditugun produktuak birziklatutako kartoizko eta beirazko ontzietan sartuko ditugu. Beirazko ontziak Laudioko Vidrala enpresatik eskuratuko ditugu eta kartoizko ontziak berriz Balmasedako Euskalvaso enpresatik. Aipatutako enpresa biak Bizkaian kokatuta daude, horrela Euskal Herriko merkataritza sustatuko dugu.
- Bizkaian kokatuta dauden Caritas elkarteko aterpetxeak gure produktuez hornituko ditugu. Batez ere Durango eta Bilbon daudenak. Berez, elkarte hauetara haragia eta arraina eramango ditugu, izan ere barazkiak eta frutak guk ekoizteko behar ditugu.
- Publizitatea Herri Aldizkarietan (Anboto, Begitu Arratia Aldizkaria, Barren...), Euskadi Irratian eta gure produktuak saltzen ditugun Euskal Herriko dendetako erakustokietan egingo dugu. Instagram eta facebook bidez ere gure negozioaren berri emango dugu. Publizitatea guretzat oso garrantzitsua da, gurekin lanean dauden merkatal zentroak egiten dituzten soberakinen donazioak ezagutarazteko, eta beraien irudi korporatiboa hobetzeko.
- Kutxabank-en eta Laboral Kutxa-n irekiko ditugu kontuak eta bertatik kudeatuko ditugu sarrerak eta gastuak.
- Produktuak kaleratu orduko, Basque Culinary Center Fundazioan testatuko ditugu. Hauek produktuak hobetzeko aholkuak emango dizkigute, lan harreman honek prestigioa edo ospea emango digu.